Prentsa oharra
Nota de prensa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# Izaro, Ariel Rot & Kiko Veneno eta Zetak, Sagueseko kontzertuetako protagonistak

La M.O.D.A., MITIC El espectáculo, Ana Guerra, Green Valley eta Gatibu dira proposamena osatzen duten artistak

Sagueseko agertokiak dar-dar egingo du berriz, bi urtez kontzerturik gabe egon ondoren. Hala, Aste Nagusian gehien espero den erreklamazioetako bat askotariko proposamen plural batekin iritsi da. "Egitarauak pandemian hartutako konpromisoak berreskuratu ditu eta izen berriak jaso ditu", adierazi du Kultura eta Jai Jardueretarako zinegotzi Jon Insaustik.

"Donostia Kultura- Festaketik gizartean zoriontasuna, giro ona eta motibazioa sortzen lagundu nahi dugu, eta Sagueseko kontzertuen itzulera aukera ona da testuinguru egokia sortzeko", esan du Insaustik. "Peio Reparazek (Zeta) ondo abesten duen bezala, guk ere *Akelarre* bat prestatu dugu, eta bertan guztiok aurkituko dugu gozatzeko zerbait", gaineratu du.

Abuztuaren 13tik 20ra bitartean kontzertu bat izango da egunero, kasu guztietan 23:45ean hasita.

## IZARO. Abuztuak 13

Donostian bizi den bakarlari bizkaitarrak emango dio hasiera programazioari. "Limones en invierno" bere bigarren lanak, Espainian gehien saldutako diskoen zerrendan bigarrena izatera iritsi zen. Artista euskaldun hain gazte batek ez du zekula lortu, hain denbora gutxian, "sarrerak agortuta" kartela jartzea Euskadiko musika kenplu guztietan (Kursaal, Euskalduna, Victoria Eugenia…). Bere musika intimoa eta sentsibilitate sakonekoa da, entzulea erremediorik gabe hunkitzen duena.

## LA M.O.D.A. Abuztuak 14

LA M.O.D.A (La Maravillosa Orquesta Del Alcohol) folk, blues, rock & roll eta punk eraginak dituen zazpikote akustiko bat da. Lau LP, EP batzuk eta zuzeneko pare bat disko argitaratu ditu. Bere azken diska aurkeztera dator: "Nuevo Cancionero Burgalés", Gorka Urbizuk (Berri Txarrak) ekoitzia.

## ARIEL ROT & KIKO VENENO. Abuztuak 15

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik beren karrerak modu paraleloan landu dituzten bi musikari historiko. Orain arte ez dira elkarrekin igo eszenatoki batera.
Donostiakoa kontzertu berezia izango da. Izan ere, "Me estás atrapando otra vez", "Dulce condena", "En un Mercedes blanco" edo "Volando voy" bezalako doinu ezagunak abesteaz gain, tartea utziko diete tokiko artistei. Gainera, ustekabeko gonbidatuak egongo dira, eta publikoarekin musikaren bizipenei buruzko pasadizoak, historiak eta kontakizunak partekatzeko aukera.

**ZETAK. Abuztuak 16**

Pello Repáraz (Vendettako kide ohia) buru duen Zetak talde nafarrak musika elektronikoa euskaraz egiten du, poparen argitasunari eta melodiari uko egin gabe. Ohikeria alde batera uzten duen musika sortzen du, soinu sintetikoak eta txalapartaren ohiartzun tradizionalak uztartuz.

**MITIC El espectáculo. Abuztuak 17**

MITIC El espectáculo helburu bat betetzen saiatzen da: Galiziako gaita jarraitzaileez haratago eramatea eta bere ahalmen guztia erakustea. Rock talde bat eta orkestra bat ikus-entzunezko ikuskizun harrigarri eta berritzaile batean. Bi orduz, musika genero ezberdinak eta zinemaren historiaren pasarteak bisitatuko ditu.

**ANA GUERRA. Abuztuak 18**

Kanarietako abeslari eta konpositorea. Telebistako Operación Triunfo saioaren 2017ko edizioan parte hartu zuen eta bertan ezagutarazi zuen bere burua. Ahots sakona eta moldakorra eta suntsiezina dirudien bokazioa dira bere dohaietako batzuk.

**GREEN VALLEY. Abuztuak 19**

Banda española de reggae y dancehall compuesta por seis músicos alaveses y catalanes. Espainiako reggae eta dancehall talde hau Arabako eta Kataluniako sei musikarik osatzen dute. Eszenaratze harrigarriak, hitz aldarrikatzaileak eta mezu positiboak erabiltzen dituzte publikoa kutsatzeko eta kontzientziatzeko.

**GATIBU. Abuztuak 20**

Gernika-Lumon (Bizkaia), 2000ean sortutako euskal rock banda. Gaur arte zazpi diska eta zuzeneko bat argitaratu ditu. Hastapeneko kantuetan jada argi antzematen zen euskal kulturaren lerro musikal esanguratsuenetako parte zela. Bizkaieraz abestutako rock koloretsua.

**Aniztasuna islatzeko kartela**

“Kanoikada festazalea”. Horrela deitzen da aurtengo Aste Nagusiko kartela. Bertan, kolore biziak eta hiriko jaietako pertsonaia esanguratsuenak bizi dira.
Cristobal Aguiló egileak kartel honekin irabazi zuen 2020ko Aste Nagusia iragartzeko deitu zen lehiaketa, baina COVID19a zela eta, ez zen egin.
Insaustik adierazi duenez, “aurtengo kartelak aniztasuna eta festa bizitzeko eta festan parte hartzeko bideak islatzen ditu. Guztiak bateragarriak”.

Donostia, 2022ko ekainak 10

# Izaro, Ariel Rot & Kiko Veneno y Zetak brillan en el esperado programa de los conciertos de Sagüés 2022

Completan el cartel La M.O.D.A., MITIC El espectáculo, Ana Guerra, Green Valley y Gatibu

El escenario de Sagüés volverá a vibrar después de los dos años sin conciertos por la pandemia. Uno de los reclamos más esperados de Semana Grande llega así con una propuesta diversa y plural que, en palabras de del concejal de Cultura y Actividades Festivas, Jon Insausti, “recupera compromisos adquiridos en la pandemia e incorpora nuevos nombres”.

“Desde Donostia Kultura-Festak también queremos cooperar en generar felicidad, buen ambiente y motivación en la sociedad, y la vuelta de los conciertos de Sagüés es una buena ocasión para generar un contexto propicio”, comenta Insausti. “Como bien canta Peio Reparaz (Zetak) nosotros también hemos preparado un *Akelarre* donde todos y todas encontraremos algo con lo que disfrutar” añade.

Entre el 13 y el 20 de agosto habrá ocasión de disfrutar de un concierto al día que, en todos los casos, comenzará a las 23:45h.

## IZARO. 13 de agosto

La solista vizcaina residente en Donostia será la encargada de abrir la programación. “Limones en invierno”, su segundo álbum, llegó a ser número dos en la lista de discos más vendidos en España. Nunca una artista vasca tan joven y en tan poco tiempo había conseguido colgar el cartel de “no hay entradas” en todos los templos de la música de Euskadi (Kursaal, Euskalduna, Victoria Eugenia…). Su música es íntima, sensible y profunda, y conmueve irremediablemente a quien la escucha.

## LA M.O.D.A. 14 de agosto

LA M.O.D.A (acrónimo de la Maravillosa Orquesta Del Alcohol), es un septeto acústico con influencias folk, blues, rock & roll y punk. Después de cuatro LP´s, un puñado de EP´s y un par de discos en directo, vuelve con un nuevo disco, “Nuevo Cancionero Burgalés, producido por Gorka Urbizu (Berri Txarrak).

## ARIEL ROT & KIKO VENENO. 15 de agosto

Dos históricos que, desde mediados de los setenta, han forjado sus carreras por carriles paralelos. Hasta ahora no se habían subido juntos a un escenario.

El de Donostia será un concierto especial. Además de interpretar hits como “Me estás atrapando otra vez”, “Dulce condena”, “En un Mercedes blanco” o “Volando voy”, dejarán espacio a grupos y artistas locales que se integrarán al espectáculo. También

habrá invitados/as sorpresa, y tiempo para compartir con el público anécdotas, historias y relatos sobre las viviencias de los músicos.

**ZETAK. 16 de agosto**

Con Pello Repáraz (ex Vendetta) al frente, la banda navarra ZETAK se caracteriza por crear música electrónica en euskera salpicada con la luminosidad y las melodías del pop. En sus creaciones conviven en armonía los sonidos sintéticos y los ecos tradicionales de la txalaparta.

**MITIC El espectáculo. 17 de agosto**

MITIC El espectáculo trata de cumplir un objetivo: sacar la gaita gallega más allá de sus adeptos y mostrar todo su potencial. Una orquesta y una banda de rock en un show audiovisual sorprendente, innovador y entrañable que, a lo largo de dos horas, recorre diversos géneros de música y también la historia del cine.

**ANA GUERRA. 18 de agosto**

Cantante y compositora canaria que se dio a conocer por su participación en la edición de 2017 de Operación Triunfo. Atesora muchos de los dones por los que la mayoría suspira: una voz profunda y versátil y una vocación que se intuye indestructible.

**GREEN VALLEY. 19 de agosto**

Banda española de reggae y dancehall compuesta por seis músicos alaveses y catalanes. Una sorprendente puesta en escena con letras reivindicativas y mensajes positivos que contagian y tratan de concienciar a sus seguidores.

**GATIBU. 20 de agosto**

Banda vasca de rock fundada en Gernika-Lumo (Bizkaia) en el año 2000. Hasta hoy ha publicado siete álbumes y un directo. Desde sus primeras canciones se aprecia claramente que ha nacido para formar parte de una de las líneas musicales más populares de la cultura vasca. Rock colorido cantado en euskera vizcaino.

**Cartel para reflejar la diversidad**

“Cañonazo festero”. Así se llama el cartel de la Semana Grande de este año. En él conviven los colores vivos y los personajes más emblemáticos de las fiestas de la ciudad. Su autor, Cristóbal Aguiló, ganó con él el concurso que se convocó para anunciar la Semana Grande 2020 y que, debido a la COVID19, no pudo realizarse. En palabras de Insausti, “para esta edición el cartel de la Semana Grande refleja la diversidad y la forma de vivir y de participar de la fiesta. Todas ellas compatibles”.

Donostia / San Sebastián, 10 de junio de 2022